

MOZIOA, PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUA, ULIA MENDIKO BIDEAK ETA SARBIDEAK BALDINTZA ONETAN IZATEA DELA ETA

Ernesto Gascok, PSE-EE taldeko zinegotziak, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudia oinarri, **MOZIO** hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Udal gobernuak legealdi osoan nolako pasibotasunez jardun duen ikusita, Bildurentzat lurralde basati bat da Ulia, administrazioak kasu egitea eta zaintzea merezi ez duena. Hiri honi luzeegi egin zaizkio gobernu hau egondako lau urteak, ez baitu batere zaindu hiria, oro har, eta Ulia, bereziki.

Gobernu hau “far west” moduko bat ari da bihurtzen Ulia –edo “far east” esatea egokiagoa litzateke kasu honetan–, bizitzeko lurralde desegoki bat, hiriaren gainerako eremuetatik berezia, non badirudien ez dela bizi hiriko gainerako bizilagunen eskubide eta betebeharrak berberak dituen donostiarrik.

Bilduren gobernuak ez bakarrik esan die ezetz Uliari mikrobus zerbitzu bat jartzeko eta, hala, auzo hori garraio sare publikoarekin eta aterpetxearekin lotzeko sozialistok egin ditugun proposamen ugari; horrez gainera, ezin egoera kaskarragoan dauka Uliara sartzeko errepidea, eta Uliako bizilagunek kexa ugari, bidezkoak oso, jarri dituzte horregatik. Horri gaineratu behar zaizkio hango argiteria eskasa, espaloi hondatuak eta inolako trabarik gabe bidea estaltzen duten landareak. Beldur gara utzikeria sentsazio horrek ez ote duen lgerdo 2 bat ekarriko hiri hau gero eta txikiagoa eta uzkurragoa izatea dakarren nora ez politikoa horretan.

Panorama triste horri gaineratu behar zaio alkatea, duela hilabete batzuetatik, antzinako modu eta formak erabiliz ari dela kanpaina egiten: proiektu eta inbertsio handiko iragarkiak, inola ere kontuan hartzen ez dutenak hiriaren lehentasuna, hau da, bideak, kaleak, espaloiak eta hiri altzariak behar bezala izatea garbitasun, duintasun eta irisgarritasun aldetik.

Hori dela eta, hauxe da nire

MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari presaz onar dezala Ulia mendia hirian integratzeko neurri sorta bat, trafikoa segurua eta arina izango dela ziurtatzeko, sarbideak bermatzeko eta hango espaloiak, asfaltoa, argiak eta hiri altzariak egokitzeko eta txukuntzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari hiriko garraio publikoaren sarearekin lot dezala Ulia eta jar dezala mikrobus bat Uliako aterpetxeraino eta haren inguruneraino, auzoko irisgarritasuna hobetzeko.

Donostia, 2015eko apirilaren 23a

Ernesto Gasco,
PSE-EE taldearen bozeramailea.